

FUNTSEZKO JARDUERAK

Esentziala da gure enpresan bakoitzak dagokion jarduera egitea, honek funtziona dezan. Efizientzia handiagoa lortu nahi badugu, gure arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzea beharrezkoa da. Hori dela eta, guztia batu behar da, gure enpresaren irabaziak handitzeko eta honen hazkundera lortzeko. Horretarako, honako hauek dira jarduera garrantzitsuenak:

Lehenik eta behin, gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena da, gure helburu nagusiak etekinak eta hazkundera lortzea direlako. Beraz, honetarako bitala da ekoizpen buru bat, kasu honetan Alex Gomez izango dena, bere betebeharra betaurrekoak produzitzea (konpondu) eta diseinuak sortzea da. Honek gure tailerrean egingo du lana, azken finean gure eskulana izango delako.

Bigarrenik, merkataritza eta salmentak kontrolatzen dituen buru bat egon beharko luke. Alde batetik, jende aurreko arreta pertsonalaz arduratuko da. Beraz, dendan kokatu genduke Oier Azkue, bezeroen zalantzak argitzeko, informazioa zabaltzeko, produktuak saltzeko... Bestalde, hornikuntzarekin arduratuko da, produktuak antolatu eta biltegiaratu dituen.

Hirugarrenik, gure webgunea eta sare sozialen kontuak martxan jartzea izango da gure lehentasunetako bat. Horren bidez, gure produktuak bezeroengana iristeko modua errazteaz gain, erosketa-esperientzia irisgarriagoa eskainiko dugu. Ondorioz, ikusgarritasuna areagotuko eta marka ezagunagoa egitea lortuko dugu. Atal honen ardura Ander Ascargortarena izango da. Sare sozialetaz eta webguneaz arduratuko da, merkatua aztertuko du eta marketing estrategiak erabakiko ditu.

Azkenik, Itzea Umerezek dirua kudeatzeko dituen trebetasunak praktikan jarriko ditu. Bulegoan administrazio-lanetan jardungo du, finantza-arloan diru-sarrerak eta gastuak kudeatuz eta baita ere etorkizuneko inbertsioak eta aurrekontua planifikatuz. Administrazioaz arduratzeaz gain, giza baliabideen, kontabilitatearen eta fakturazioaren ardura ere izango du.